



# Voith-Gorostidi etxebizitzaren eremuko lehen zozketa egin dute

**TOLOSA ▶** 292 etxebizitza tasatuen zerrenda aukeratu zuten atzo Leidorren eginiko zozketan

**URRATSAK ▶** Abenduan bigarren zozketa izango da etxea esleitzeko; itxaron zerrenda ere osatu zuten ▶ 2



Jende ugari hurbildu zen Leidorra. Mahaian, ezker-eskuin: Lazkano, Moreno, Bildarratz, Ortega eta Unanue. I. TERRADILLOS

TOLOSA ▶



E. EZEIZA

## Deabruak Teilatuetan taldea berriz martxan lan berriarekin

Bederatzi urte eta gero '1973' diskoa kaleratu dute ▶ 3

LEITZA ▶

## Aurrera Perra «pozik» irteerarekin ▶

ANOETA ▶

## AHTri buruzko prozesua aurrera doala berretsi dute

«Erabat demokratikoa» dela azaldu dute ▶ 6

**RENAULT**  
occasion

### TOLOSA IRAULI BEHARREAN

Zain egon zara, eta horra. Gero ere, Tolosan... AUTOAZOKA, AUTOBERRIren sekulako Ibilgailu Azoka.

Urriaren 25etik 27ra aukera paregabea duzu bila ibili zaren ibilgailua aurkitzeko, gamarik ugariena baitaukagu modelo matrikulatuetan, km-rik gabe, aldean eraman dezazun. Zatoz urriaren 25, 26 eta 27an, 09:00etatik 13:00etara eta 15:30etatik 20:00etara.

AUTOAZOKA iraultza da.

AUTOAZOKAn ibilgailu bat erosiz gero, hemen ikusten den TOMTOM nabigatzailea oparituko dizugu  
*eta gainera* **200€\*** Irargari hau aurkeztuz

**AUTOAZOKA AUTOBERRIEN**  
urriaren 25, 26 eta 27an

**AUTOBERRI**  
Anoeta Industrialdea, z/g Tel: 943 65 28 43 TOLOSA



**laster gertuago...**

ZILARREZKO  
JAURTIKETA ▶  
JON ALTUNAZorionak  
Mikel!

noiz ez nintzen izan Kanariar irletan. Ligako 9. jardunaldiak Tenerifen jokatzerara eramane gintuen. Teideren magalean eratzen den irlari buruz beste ideia bat nuela aitortu beharra daukat, izan ere, kostaldea salbu, bertako paisaia lehorra eta tristea iruditu zitzaidan. Hori bai, urri bukaeran gaudela kontuan hartuta, tenperatura bikaina zegoen. Ohikoa baino luzeagoa bihurtu zuen asteburua irletan ematen den ordubeteko atzerapenak, eta taldekide bat baino gehiago nahastuarazi zuen. Gutxi batzuk berandu iritsi ziren afarira, eta talde barruan jarriak ditugun isun sinboliko batzuk ordaindu beharko dituzte. Taldekide guztientzat pintxo eta garagardoak!

Esan bezala partidua Tenerife taldearen aurka genuen. Bertan lagun bat izan nuen aurkari, Mikel Arruabarrena tolosarra. Partidua baino lehen berarekin hitz egiten egon nintzen eta oso gustura zegoela esan zidan. Arratsalde borobila izan zen Mikelelantz, berak sartutako bi golek taldearen garaipenean lagundu baitzioten. Gol horiek gure porrota eragin arren eta triste egon arren, beragatik poztu nintzen, gure porrota behintzat, lagun baten mesedetan izan baitzen.

Astelehenera arte ez genuen hegaldirik eta egia esan ez geunden oso umoretsu. Astelehen goizean entrenamendu berezia izan genuen eta partidua ahaztu eta umorea berreskuratzeke balio izan zuen. Zelaiekin arazoak zirela eta, hondartzan egin genuen entrenamendua. Desberdina izan zen, jolasean ibili ginen eta esan bezala ondo etorri zen porrota ahazteko. Batek baino gehiagok pentsatu genuen horrelako entrenamendua gehiago ez lirakeela gaizki etorriko baina... Orain hurrengo asteari begira jarri behar eta ea berriro garaipenaren bidea aurkitzen dugun.

## HIRIGINTZA ▶

# Urduritasuna, poza eta atsekabea Voith-Gorostidiko zozketan

292 etxebizitza tasatuen lehendabiziko zozketa egin zuten atzo goizean; askotariko sentimenduak izan ziren nagusi



Ezkerrean, bolatxoak ateratzeaz arduratu zen boluntarioa. Eskuinean goian, ezker-eskuin: Aitziber Lazkano, Valentina Moreno, Jokin Bildarratz, Rikardo Ortega eta Jose Luis Unanue. Behean, jendea Leidorren. i. t.

## IÑIGO TERRADILLOS

Atzo goizean egin zuten Leidor aretoan Voith-Gorostidi eremu-ko etxebizitza tasatuen lehendabiziko zozketa. Bertan izan ziren, Jose Luis Unanue Tolosako Udaleko idazkaria, Rikardo Ortega Eusko Jaurlaritzako etxebizitza sailko Gipuzkoako ordezkaria, Jokin Bildarratz Tolosako alkatea, Valentina Moreno Tolosako notarioa eta Aitziber Lazkano Voith-Gorostidi etxebizitzaren Udal bulegoko arduraduna. Eta hauekin batera, noski, zozketa honetara deitua ziren herritarrek.

Zozketa «gardena eta azkarra» izango zela aurreratu zuen Jokin Bildarratzek hasi aurretik, eta guztiei zorte ona opatu zien. Bestalde, Rikardo Ortégak eskerrak eman zizkion Tolosako Udalarri, eta Jabier Madrazo Etxebizitza Sailburuaren agurra ere helarazi zuen. Halaber, zorte ona opatzeaz gain, laisatasun mezua ere zabaldu zuen, «zozketa honetan zorteak ez dutenek aukera gehiago ere izango dute aurrera begira».

Aitziber Lazkano Voith-Gorostidi eremuko etxebizitzaren Udal bulegoko arduradunak hartu zuen hitza alkateak bere lana eskertu ostean. Zozketaren prozedura azaldu zien bertaratu zirenei. Guztira, 563 eskatzaile izan ziren zozketan sartu zirenak, izan ere, bi baja izan ziren zerrendak egin zituztenetik. Eskatzaile guztien zenbakidun bolak sartu zituzten loteria-ontzietan, mugikortasun urrikotzat bat baitzegoen, eta gainerakoentzat bestea.

Beharrezko azalpenak eman ostean, beraz, guztia prest zegoen 292 etxebizitza tasatuen zozketari ekiteko. Loteria-ontzietatik bolak ateratzeko arduratu zuen boluntarioak ateratako lehendabiziko lau bolak mugikortasun urriko eskatzaileei zezogkion. Hauen kasuan, alde aurretik bazekiten etxebizitza bat egokitu zitzaizela eskatzaile bakoitzari, etxebizitza gehiago baitziren eskatzaile baino. 288 etxebizitza geratzen ziren orduan zozketarako. Banan bana joan ziren bolatxoak ateratzen

288.era iritsi arte. Une horretatik aurrera ateratzeko geratzen ziren zenbaki guztiekin itxaron zerrenda egin dute atera dituzten hurrenkeran.

## Bigarren zozketaren zain

Behin «sarituen» izenak jakinda, hauen datuak aztertuko dituzte berriro, ea toki-babeseko etxebizitzak adjudikatzeke oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituzten ikusteko». Hautatutakoren batek ez balituzke baldintzak beteko, edo atzera egingo balu, itxaron zerrendako hurrengoari emango litzaiotke aukera. Hala, atzokoaren ostean, abenduan egingo dute bigarren eta azken zozketa, garajeak, etxebizitzak eta trastelekuak esleitzeko adjudikatarioen artean.

Bestalde, zozketa honen aurka agertu zenik ere izan zen atzokoan, Sanblaspioko Gazte Asanblada, esaterako. Hauek Leidor aretoaren kanpoaldean zabaldu zuten euren mezua orritxo bidez, *Eskubideak ez dira zozketatzen!* lelopean.

## INKESTA ▶

Zer sentitzen duzu zozketako emaitzaren aurrean?

## MARIA JESUS GIBAJA



«Semearen zenbakia izan da aukeratuetako bat, eta oso gustura nago. 30 urte ditu, denbora luzez egon da horrelako aukera bat itxaroten, eta gaurkoan zorteak izan du. Asko poztzen naiz».

ARANTZAZU SESTALO  
ETA OSCAR SANCHEZ

«Oso gustura gaudu, ez bainuenen espero gure zenbakia irteera. Gainera, zozketa aurrera zihuan pixkanaka, eta gero eta aukera gutxiago genuela ikusten ari ginen, baina azkenean gure zenbakia izan da aukeratuetako bat. Ezkontzako oparia bezala da hau guretzat».

JORGE MORENO ETA  
EDURNE MORENO

«Nire zenbakia aukeratuetako bat izan da. Horretaz gain, oso gustura nago, zozketara hamar zenbakirekin etorri bainaiz, nire seme-alabek, lagunak, bizilagunak eta abar, eta guztien zenbakiak izan dira aukeratuak. Oraingoan bai, gure zenbakia irten da!».

## KARMEN INSAUSTI



«29 urte dituen alabaren zenbakiarekin etorri naiz zozketara eta berea irten da. Oso urduri nago, eta pozik, gaurkoa hirugarren zozketa baita parte hartzen duena, eta azkenean berari egokitu zaiou».

## XABI MATEOS



«Nire lehendabiziko zozketa izan da gaurkoa, eta nire zenbakia izan da irten denetako bat, eta nirea bezala nire lagun askorena ere bai, beraz alde horretatik pozik nago. Baina, nire anaiarena ez da atera, eta penarekin geratu naiz».

MUSIKA ▶

# Deabruak Teilatuetan berriz hemen da '1973' lanarekin

Bederatzi urteko geldialdiaren ondoren, berriro elkartzea erabaki dute

ESTI EZEIZA

Bederatzi urteko geldialdiaren ondoren, bere laugarren diskoa aurkeztu dute Deabruak Teilatuetan taldekoek. 1998an, *Hau da ene ondasun guztia* lanarekin gero arte esan zieten beraien jarraitzaile guztiei, eta orain, ia hamar urte beranduego, *1973*rekin, berriro hemen eta elkarrekin direla erakutsi dute.

1973 izenburupean, hamai-ka kantu berri biltzen ditu argitalpenak. Taldekideen esanetan, «aurreko diskoen antzekoa bada ere, 10 urteko ikuspegia nabari da». Aritz Mendieta (ahotsa), Iñigo Arruti (bateria, perkusioa, koroak), Joni Ubeda (Baxua, koroak) eta Imanol Ubedak (Gitarra, koroak) osatzen dute laukotea, eta gogotsu datoz beraien lan berriarekin.

Kantu ia denak beraiek konposatu dituzte, bat izan ezik. *Ez baletor inor* abestiko hitzak «beraiek oso gustuko duten» azpeitiar poeta batek idatziz ditu, Jose Luis Otamendik, hain zuzen ere. Diskoaren diseinua



Ezker-eskuin, taldekideak: Joni Ubeda, Iñigo Arruti, Aritz Mendieta eta Imanol Ubeda. HITZA

Joseba Poncek egin du. Mendieta azaldu bezala, «oso gustura geratu gara diseinuarekin, gauza sinplea baina duina egitea nahi genuen eta horrela izan da». Dena den, orain, bi hilabete inguru itxaron beharko dira beraien zuzeneko emanaldiez gozatzeko. Izan ere, lehen

**AURKEZPEN KONTZERTUA ▶**

**Diskoa.** *1973 Eguna*. Abenduak 29.  
**Ordua.** 22:30.  
**Herria.** Tolosa.  
**Tokia.** Bonberenea.

kontzertua abenduaren 29an emango dute, Bonberenean bertan.

**Entseguak, duela bi hilabete**

Deabruak Teilatuetan taldea 1990eko hamarkadaren hasieran sortu zen. 1973an jaio eta

ikastolako kide, lagun eta musika gogoko zuten lau gaztek osatu zuten taldea. 1998 urte bitartean 3 disko kaleratu zituzten, eta garai honetan, ikasketak edo lana zirela medio, beraien bideak bereiztu egin ziren. Taldekideen esanetan («ia ezin izaten ginen elkartu entseguak eta egiteko, eta talde batek ez badu jotzen jarraitzen ez du etorkizunik»). Hala ere, orduko hura «gero arte bat» besterik ez zela izan argi utzi zuten musikariek, eta orain berriro, egoera aldatu denean, taldea batzea eta disko berri bat egitea posible izan da.

Duela hilabete batzuk entseguak egiten hasi ziren Bonberenean, eta handik kanta berri batzuk atera ziren. Hala, *1973* diskoan bildu, eta orain entzungai dira nahi dituen oronatzat. «Geldialdi» honetan zehar, taldekideetako batzuk musika munduan jarraitu dute, baina beste batzuk ez. Esaterako, Joni eta Imanol Ubeda, Bide Ertzean taldean aritu dira. Mendieta eta Arruti berriz, musikatik at egon dira, horregatik, «erronka berri bat bezala ikusi zuten, berriro grabazio estudioetan sartzea». Orain belaualdi berriek beraien musikariekiko duten harrera ikusi nahi dute.

1973 Bonberenea ekintzak-ekin argitaratu dute. Grabaketa, aurrekoetan bezala, Kaki Arkarazorekin egin dituzte, Andoingo Garate estudioetan.

GIZARTEA ▶

**Indiaren aldeko afaria eta desfilea, bihar**

Bihar, 21:30etik aurrera, Ongintzako afaria eta moda-desfilea izango dira Indiako Gomukh Gkeren alde. Afaria Fronton jatetxean izango da, eta menuak 60 euro balio du. Interesatuak jatetxera bertara deituta egin ditzazke erreserbak. Hau da, 943 65 29 41ra deituta.

AISIA ▶

**Bertso afaria, Peñagarikano eta Egañarekin**

Iurre elkarte bere 10. urteurrena ospatzen ari da. Hala, ekitaldien baitan, bertso afaria izango da larunbat honetan, hilak 27. Bertan izango dira, Andoni Egaña eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariak. Honen aurretik, Doneztebejo joaldun talde bat ariko da inguruak alaitzen.

AISIA ▶

**Idoia Sanchez ipuin kontalaria gaur bi herritan**

Galtzaundi euskara taldeak antolatuta, Idoia Sanchez ipuin kontalariaren bi saio izango dira gaur arratsaldean. Lehendabizikoa Ikaztegieta liburutegian izango da, 17:00etatik aurrera. Bigarrena berriz, Baliarraingo liburutegian izango da, 18:30ean.

GIZARTEA ▶

**Osakidetzako langileen geldialdia, gaur**

Gaur 12:00etan, hamabost minutuko geldialdia egingo dute, Gernikako Arbolako eta San Estebango Anbulatorioetan. Euskal Autonomia Erki-degoko gainontzeko zentruetan egiten ari diren bezala, Osakidetzako langileek kalitatea eskatzen dute beraien mobilizazioekin.

PILOTA ▶

**Aurrera-Saiatz pilotak eskolako nortzakiak**

Bihar Aurrera-Saiatz nortzakiak izango dira Beotibarren, 19:30ean: kadeteen banakakoa eta kadeteen lehen mailakoa. Etzi, 11:30ean senior mailako binakakoa (Aspe-Huarte eta Baez-Telletxea), eta igandean seniorren binakakoa, 09:00etan (Renobales-Galarraga eta Ilunpe).

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldekohitza.info  
Tel.: 943 65 56 95

TOLOSA ▶ JAIK

# Olarraingo jaiak bihar hasiko dira musarekin

XIX. Mendiko Bizikletaz Trabesi Herrikoia eta Gorostidi eta Goikoetxea bertsolariak izango dira igandean



lazko mendi bizikletako trabesi herrikoia une bat. HITZA

## NEREA URBIZU

Olarraingo auzoan asteburu honetan izango dira jaiak. Honen baitan, jadanik 19 urtez antolatuko dute, aurtengoa barne, mendiko bizikletaz egiten duten trabesi herrikoia. Igandera, Gorostidi eta Goikoetxea bertsolariak gonbidatu dituzte, eta trikitilariak ere izango dira.

Bihar gauean mus txapelketak emango dio hasiera jaiak, eta hurrengo bi egunetan zehar mendi bizikleta trabesia, jolasak, txaranga, patata tortilla lehiaketa eta bazkariak izango dira.

Aurtengo mendi bizikleta trabesian parte hartzeko igandean bertan 08:30etik 09:30era bitartean eman behar da izena elkartearen bertan. Parte-hartzaile guztien artean mendiko bizikleta bat zozkatuko dute, gehi beste hainbat sari. Dutzak, laguntza mekanikoa eta medikuaren zerbitzua ere izango dira. Lagun Artea elkarteak Peña Olanok antolatzen du trabesi herrikoia.

Igandean Bixente Gorostidi amezketarra eta Ekaitz Goikoetxea beasaindarra izango dira bazkariaren ondoren, eta gero, Aiora eta Maitane trikitilariak.

## EGITARAU ▶

### URRIAK 26, BIHAR

22:00. Mus Txapelketarekin auzoko festei txanda emango zaie.

### URRIAK 27, ETZI

21:00. Auzokideen arteko afaria.

▶ Ondoren, dantza saioa Aiora eta Maitane trikitilariekin.

### URRIAK 28, IGANDEA

10:00. Lagun Artea elkarteak Peña Olanok antolatutako XIX. Mendiko Bizikletaz Trabesi Herrikoia, 14 urtetik gorakoentzat.

▶ Izena elkartearen bertan eman behar da, probaren aurretik (08:30etik 09:30era bitartean). Sariak ere izango dira.

11:30. Bentaundiko helduentzat ohiko hamaiketako izango da.

12:00. Umeentzako jolasak bazkaltzeko ordura arte.

12:00etatik aurrera. Txaranga auzoan zehar jotzen ariko da.

13:00. Patata tortilla lehiaketa.

▶ Oharra: tortillak etxean egin behar dira eta elkartearen aurkatzeko epea 12:00etan bukatuko da.

14:00. Auzokideen bazkaria. **Jarraian.** Bixente Gorostidi amezketarra eta Ekaitz Goikoetxea (Goierri) bertsolarien saioa.

▶ Ondoren, Aiora eta Maitane trikitilariekin ariko dira bazkalondoa alaitzen. Aurtengo festen bukaera izango da.

TOLOSA ▶ GIZARTEA

## Bilera-afaria egin dute San Krispin kofradiakoek

40 urtean zehar kofradiako idazkari izan den Alvaro Pradari omenaldia egin zioten



San Krispin kofradiako kideak. I. GARCIA

## I. GARCIA

San Krispin kofradiako kideek herenegun gauean egin zuten urteroko bilera-afaria Casinoko elkartean. Gipuzkoan dagoen kofradia zaharretakoa da, 1616. urtean sortu baitzen. Batez ere zapatarri eta zapatadendan jabeek osatzen dute kofradia hori.

Ekitaldian Alvaro Pradari omenaldia egin zioten. Prada

40 urtetan kofradiako idazkari izan da eta plaka bat oparitu zioten afariaren ondoren, «kofradiari emandako zerbitzuegatik».

Kofradiako kideek gaur San Krispin eta San Krispiniano Eguna ospatuko dute. Horrela, 10:00etan meza izango dute Santa Maria elizan. Beraien eguna izaki, zapatariek ez dute lan egingo eta zapatadendan itxita egongo dira.

## ALEGIA ▶

### Odol-ematea izango da bihar iluntzean

Odol-emateak hiru hilabetean behin-edo izaten dira Alegian. Oraingoan bihar izango da, 19:00etan, mediku etxean. Bertan 2 orduz egongo dira, eta odola eman ondoren jateko zerbait ematen dute ahultasun txiki hori kentzeko. Bertan herritarrek ez direnek ere odola eman dezakete. Odola lehen aldiz eman nahi dutenek aurretik datu batzuk eman behar dituzte.



Alegian odola ematen. P. R.

## AMEZKETA ▶

### Sardina jaterako txartelak salgai daude

Amezketan azaroaren 9tik 18ra bitarte Kultur Astea antolatuko dute. Tartean, sardina jatea izango da. Ugarte auzoan azaroaren 10ean. Txartelak salgai daude herriko tabernetan, 10 euroren truke eta azaroaren 4ra arte.

# G

Urriak 27. Auzokideen arteko afaria. FIBAR, Euzkoen Arteak eta Txapelketak.

Urriak 28. Auzokideen bazkaria. ZUMAIA, Beasaindarren Saioa eta Odol-ematea.

www.guorria.com

hitza

# OSKI

GAZTEA

Emeterio Arrese, 5 • TOLOSA  
943 65 56 21

M<sup>a</sup> Victoria Ortiz

# POLICLÍNICA GIPUZKOA, BETI AURRETIK.

Policlínica Gipuzkoan lidergo bokazioa dugu. Hori dela eta, kirurgia-erakin beriarekin gure zerbitzuari beste bultzada handi bat eman diogu. Bertan gure antolaketa eta protokoloak ahalik eta gehien optimizatzeko aukera izango dugu, gure erantzun-baliabide guztiak eta gure gaixoei zuzendutako arreta sustatzeko sortu bait da.

Policlínica Gipuzkoako kirurgia-erakin berriak gure osasun-zerbitzua sendotu, osatu eta hobetu egiten du.

Beste behin, Policlínica Gipuzkoa, zerbitzu mediko pribatuko buru da, bai Gipuzkoan, bai Euskadin ere.

POLICLÍNICA GIPUZKOAKO  
KIRURGIA-ERAIKIN  
BERRIA

**9.000 m<sup>2</sup> gehiago**

TEKNIKA MEDIKO  
AURREHATUENETARAKO



INTEGRATIBOAN 12 OPERAZIO-GELA  
2 ERDITZE-GELAKO, OBSTETRIZIA-UNITATE 1,  
ZIKLO 14 GELA  
ANESTESIA OHIBOKO ERREKUPERAZIOERAKO 15 POSTU  
10 GELAKO KONEXO OSPITALIA



POLICLINICA GIPUZKOA

[www.policlinicagipuzkoa.com](http://www.policlinicagipuzkoa.com)

Zure osasuna, gure arreta da.

TEL.: 943 002 800

ANOETA ▶ AHT

# Eragileek AHTri buruzko prozesua aurrera eramango dutela berretsi dute

Burutzen ari diren prozesua «erabat demokratikoa» dela azaldu dute



Eragileetako ordezkariak prentsaurrekoa eman zuteneko unea. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Anoetako hainbat eragileek berretsi egin zuten Abiadura Handiko Trenaren inguruan abian jarritako prozesua aurrera eramateko «konpromisoa» atzo egindako prentsaurrekoan. Bertan izan ziren AHT Udaleko, Gazte Asanbladako, LABeko eta ezker abertzaleko ordezkariak.

Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak, Paulino Luesmak, egindako adierazpe-

nak «hautsak harrotu» dituela azaldu zuten eta horren aurrean, burutzen ari diren prozesua «erabat demokratikoa dela» zehaztu zuten. «Prozesu honen helburu bakarra AHTk eragin- go dituen ondorioez herritar- rako informazioa, eztabaida sustatzea eta herritarrek AHTrekiko duten iritzia eman dezaten baliabideak ipintzea» dela adierazi zuten. Horrelako prozesua galeratzea, eragileek zein herritarrek «ez lukete ulerteko», azaldu zuten. Horrez gain, AHTren inguruan behar

hainbat informazio ez dagoela esan zuten.

Joan den astean informazio kanpaina abiatu zuten eta azaroaren 18ra arte luzatuko da. AHTk ekarriko dituen ondorio- en berri ematea du helburu. In- formazio kanpainaren ondo- ren, eztabaida prozesuari emango diote bide. Gonbida- penak bidali arren, oraingoz «AHTren aurkako taldeek so- lik erantzun dutela» azaldu zuten. Idatziz egin badute ere, prentsaurrekoan Nuria Lopez de Gereñu Herri Lan eta Ga-

## EGITARUA ▶

Etzirako hainbat ekintza antolatu dituzte.

**11:00.** Mendi martxa abiatuko da Anoetako plazatik. Bertan baserritar- rako informatu eta «kaltetuko diren tokiak» ikusteko aukera izango da. Norberak eraman beharko du bazkaria.

**18:00.** Trikopoteoa herrian barrena.

**19:00.** Gaztain jatea herriko plazan ondoren, afaria Gaztetxean.

**23:00.** Kontzertua Gaztetxean Homo Demens eta Funtastik Planetekin.

rraio sailburuari eztabaidan parte hartzeko deia luzatu zioten berriro.

Bestalde, prozesua «indar- tzeke asmoz» hainbat ekimen antolatu dituzte herriko eragileek. Lehenengo ekitaldiak etzi egingo dituzte, besteak beste, AHTk «kaltetuko dituen gunee- tar» mendi martxa egingez.

ROLLESKI IGOERA ▶

## Hernaldeko probarako izen- ematea zabalik

Alpino Uzturre Elkarteak Hernaldeko 7. Rolleski Igoera antolatu du etzirako. Irteera, 16:00etan Tolosako Belate auzotik izango da eta amaiera Hernaldeko plazan. Informazio gehiago eta izena emateko 685 776 504 zenbakira deitu edo [alpinouzturre@be-gira.com](mailto:alpinouzturre@be-gira.com) helbidera idatzi daiteke.

ANOETA ▶

## 'Tocando el vacío' filma, gaur Mendi Astearen baitan

*Tocando el vacío* filma emango dute gaur Anoetako Mendi Astearen baitan. Filma hau benetan gertatutako is- tripu batean oinarritzen da, eta bi alpinisten istorioa kon- tatzten du, bati goi mendian hanka bat hausten zaiolarik. 19:00etan izango da emanal- dia udaletxean.

IBARRA ▶

## Mendi irteera antolatu dute Zuberora

Otzaurteko zubiaren inguru- an, Zuberora, mendi irtee- ra antolatu dute Ibaratik, hi- laren 28rako. Hala ere, larun- batean joan nahi duenak, bertan lo egiteko aukera izango du. Horretarako, gaur amaitzen da izena emateko epea. Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Raju taldeek elkar- lanean *Euskal Herria ezagu- tetuz, Lurraldetasuna sustatuz* lelopean, mendi irteera egi- taraua aurkeztu zuten. Bigar- ren etapa izango da igande- koa.

VILLABONA ▶

## Trafiko norabidearen aldaketa

Altzin eta Erniobera kaleeta- ko atzealdeko bidean trafiko- aren norantza aldatu egin du Udalak, «trafikoa arinagotze- ko asmoarekin, eta inguruan aparkaleku-plaza gehiago egon dadin». Horrela, nora- bideetako bat baliogabetu egin dute eta, ondorioz, bi- dea norabide bakarrekoa izango da, hau da, Donostira aldera.

VILLABONA ▶ HISTORIA

## Aritzak taldeak beste ikastaro bat antolatu du

ERREDAKZIOA

Villabona-Amasako Aritza Kul- tur Taldeak historiari buruzko beste ikastaro bat antolatu du. *1834-1936: 100 urte Nafarroan, Euskal Herrian* du izenbu- rua eta Mikel Soraren histo-

rialariak zuzenduko du. Hain- bat gai izango dituzte aztergai: Gerra Karlistak, industrializa- zioa, immigrazioa, urbaniza- zioa, euskararen atzerakada, gizarte elizkoitik gizarte laiko- ra, sinismenak, ohiturak, gizar- te eredia, hezkuntza...

Ikastaro honetan beste me- todologia bat erabiliko dute. Aurrekoan hitzaldiak baziren ere, oraingoan ikastarora joa- ten direnen parte hartzea han- diagoa izango da. Mikel Sorar- en historiagilearen laguntzaz materiala eta bibliografia bil- duko da, irakurri eta informa- zioa eskuratzeko, eta gero, bost eztabaida eta alderatze saioe- tan bateratze-lanari ekinen- zaito. Hilero saio bana, eztabai- da bana, laburbiltze saio bana egingo dute. Horregatik, ikas- taroan parte hartuko dutenen kopurua mugatua izango da.

Ikastaroari hasiera datorren astelehenean, hilaren 29an, izango da. Ikastaroaren azal- pena emango da, metodologia zehaztuz eta materialaren ba- naketa egingo dute. Saioak as- telehenean egingo dira, udal aretoan eta 19:00etan. Lehen

saioa azaroaren 26an egingo da eta gaia *Euskal Herria Esta- tu garaikideen aldaketan au- rrean* izango da. Bigarren saioa abenduaren 17an egingo da eta gaia *Espainia eta Nafar- roaren arteko norgehiagoka irekia* izango da. Hirugarren saioa urtarrilaren 2an egingo da eta gaia *Integrazioa eta erresistentzia prozesua* izan- go da. Laugarren saioa otsaila- ren 25ean egingo da eta gaia *Desegite politikoa eta kulturala- ren intentsifikazioa* izango da. Bosgarren saioa martxaren 31an izango da eta gaia *Ber- reskuratze nazionala* izango da.

Ikastaroan parte hartu nahi duenak 625 70 93 66 eta 943 69 14 11 zenbakietara deitu edo [aritz@euskaldunak.info](mailto:aritz@euskaldunak.info) hel- bidera idatzi dezake. Matriku- lak 60 eurokoa izango da.

### BANAKETA ENPRESA batek banatzaileak behar ditu Donostian, Urolan eta Tolosan.

#### Lan baldintzak:

- Astean sei egun. Asteartetik igandera.
- Bi aste lan, bat jai.
- Egunean 4 ordu.
- Goizeko 04:00etatik 08:00etara.

#### Ezinbestekoa da autoa izatea

Deitu lehenbaitzen telefono honetara: 943-30 43 41. Edo bidali zure datuak helbide elektronikoko honetara: [lanpoltsa@etxeraino.net](mailto:lanpoltsa@etxeraino.net).

LEITZA ▶ GIZARTEA



Ikastaroak Amazabal institutuan emanen dituzte. N. GARZIA

### Informatika ikasteko hainbat aukera, azaroan

Alde batetik 10 egunetako ikastaro bat antolatu dute eta bestetik, tailerrak

ERREDAKZIOA

Nafarroako Gobernuak eta Cederna-Garalur elkarteak antolatuta informatika ikastaroak emanen dituzte Leitza azaroaren 12an hasi eta 23a bitarte. Ikastaroak alde batek emakumezkoen zuzenduta daude, eta bestetik, hirugarren adineko jendeari, talde bakoitzak bere ordutegia izanen duenari: azken hauek 16:30etik 18:30era eta emakumezkoek 18:30etik 20:30era, astelehenetik ostiralera. Leitzako institutuan emanen dira, eta oinarrizko Windows, Internet eta posta elektronikoa erakustea izanen dute helburu.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak sustatutako *Hurbildu IK Tetara* izeneko ekimenaren barruan gaikako tailerrak ere emanen dituzte. Aukeran 11 tailer daude eta herri bakoitzean eskaintzen diren guztietatik 3 aukeratu dituzte. Tailerrak doakoak izanen dira, eta hamarna orduko iraupena izanen dute. Jendeak izena emateko orduan 3 gustukoena zein dituen aipatu behar du eta 3 tailer hautatuenak emanen dituzte. Kasu honetan ere emakumezkoentzako tailer bat antolatu dute eta hirugarren adineko jendearentzako beste bat. Tailer hauek ere institutuan emanen dira eta 4 egunetako iraupena izanen dute, azaroaren 26a eta

30a bitarte emanen direlarik. Tailer hauek Informazioaren eta Telekomunikazioaren Gizartea sustatzeko II. Planaren barnean kokatzen dira eta helburu nagusia informazioaren eta telekomunikazioaren teknologia berriek, eta bereziki internetek, ematen dituzten aukerak baliabide horiek gutxienez ezagutzen dituztenei hurbiltzea da.

#### 11 TAILERRAK ▶

ESKAINNTZA

1. Interneten informazioa nola bilatu.
2. Interneten erosketak egin.
3. Interneten bitartez musika eta irratia entzutea.
4. Argazki digitalak.
5. Nafarroako administrazioa Interneten.
6. Sukaldaritza Interneten.
7. Microsoft Word: nola idatzi curriculum edo iragarki bat.
8. Karrika-planoak eta mapak interneten.
9. Helduak eta buruariketak.
10. Helduentzako baliabideak interneten.
11. Ordenagailuan fitxategiekin lan egin.

#### iragarki laburrak ▶

**SALGAI**  
Autoa. Egoera oneko Peugeot 206 GTI, 16 balbulakoa. 4 urte. 656 41 02 80.

**Sukalderako.** Tolosa sukalderako pertsona bat behar da ostiral eta larunbat gauearako. 699 71 02 73.

**LANA**  
Tabernaria. Esperientziadun neska behar da Alegiko taberna batean iluntzetan lan egiteko. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 606 61 52 93.

**GALDUTAKOAK**  
Betaurrekoak. Alegian emakumeen betaurreko batzuk galdu dira. Aurkitu dituenari kopentsatu egingo zaio. 943 65 33 37.

LEITZA ▶ AISIA

# Antolatzaileak «pozik» Goizuetara egindako txangoarekin

«Ikaragarri ongi pasatu genuen eta eguraldi aparta izan zen», dio Pakito Sagastibelza antolatzaileetako batek



Iberoko errekatik igaro ziren 47 lagunak zaldi gainean. HITZA

NAIARA GARZIA

Aurrera Perra Taldeak antolatu, joan den larunbatean Goizuetara joan-etorria egin zuten 47 lagunek. Pakito Sagastibelza Aurrera Perra Taldeko kidea da, eta ibilaldi honen antolatzaileetako bat, eta egunparesaren inguruan mintzatu da. «Ikaragarri ongi pasatu genuen, eta eguraldi aparta egin zuen».

Aurreikusi zuten bezala, 09:00etan abiatu ziren gosari txikia egin eta gero, eta 13:00etarako Goizuetara iritsi ziren. «Ez zen deusen okerrik izandu», dio Sagastibelzak. Gainera, Goizuetako jendearen harrera eta jarrera azpimarratu nahi izan ditu. «Ikaragarria izandu zen, ez nuen horrelakorik inon ez ikusi. Balkoiak jendez beteta zeuden eta plazara iristen ari ginen heinean, eskuin ezker jendea zegoen, ilera antzeko bat egin ziguten».

Bazkaria Elmore ona izeneko Goizuetako elkartearen egin zuten, eta zaldunek jateko zenbait goizuetarrek lan egin zu-

ten. «Hiruzpalau emakume eta pare bat gizon lanean aritu ziren, guri janaria zerbitzatzen, eta dotore bazkaldu genuen». Goizuetarren inplikazioa ere ezinbestekoa izan zen txangoa nahi bezain ongi ateratzeko, bazkaltzen zeuden bitartean zaldiak Ansatarren belazean utzi baitzituzten. «Ansatarrek lanaldi ederra egin zuten zaldiak lotzen eta belazea utzi zizuten».

Herrira buelta

«Hagitz gustura» bazkaldu ondoren Leitzaldera abiatu ziren berriz, «pozik», goizutarren ja-

rrera zela eta. Leitzara 20:00 aldera iritsi ziren, jada ilun zegoela. «Berandu xamar zenen azkeneko 40 minutuak-edo ilunpetan egin genituen, baina ez genuen inolako arazorik izan, zaldiek guk baino hobeto ikusten baitute», dio Sagastibelzak.

Herrira iritsi eta 25 lagun inguru Aurrera elkartearen bildu ziren afari legea egitera. «Baratzuri zopa, txistorra, ardoa... Zer bait jan eta nahiko kontu esan genizkion elkarri». Ondoren zenbaitek parrandarekin jarraitu zuten, eta beste batzuk etxera joan ziren.

«Jendeak zer bait antolatuz gero oso ongi erantzuten du», dio Pakito Sagastibelzak. «Ateraldia egin behar dugula ahoz aho zabaltzen dugu, eta ezagunen artean kate antzeko bat sortzen dugu. Mendiko giroa eta zaldi giroa uztartzen saiatzen gara eta emaitza ezin hobe izan da». Aurtengo arrakasta ikusita hurrengo urtean ere berriro antolatuko dutela dio Sagastibelzak. «Zerbaitean pentsatzen hasiak gara jada, beharbada asteburupasa bat, lehengo urtean bezala».

### HITZA jaso eta abantaila guztiez gozatu nahi baduzu...

Egin zaitetz harpidedun! egunkaria + beharpenak + zozketak...

**1.- BETE ETA ERAMAN / BIDALI BEHEKO HELBIDEETAKO BATERA:**

▶ Izen-abizenak: \_\_\_\_\_ ▶ NA: \_\_\_\_\_

▶ Lanbidea: \_\_\_\_\_ ▶ Jaioteguna: \_\_\_\_\_

▶ Helbidea: \_\_\_\_\_ ▶ Herria: \_\_\_\_\_

▶ P.K: \_\_\_\_\_ ▶ Tel.: \_\_\_\_\_ ▶ mugikorra: \_\_\_\_\_

▶ P.elektronikoa: \_\_\_\_\_

▶ Kontu zenbakia:

**2.- TELEFONO BIDEZ ere eman ditzakezu zure datuak:**

Bezero arreta zenbakia: **902 82 02 01** (Asteagunetan 08:30-20:30 Larunbatetan: 09:00-13:00)

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA. Araba etorbidea, 5 behe-20400 TOLOSA edo Herriko plaza 1 - 37880 LEITZA. Nahitazkoa da datu guztiak betetzea

Egunkaria buzoian jasotzeko utzi atariko giltza ondorengo puntuetan:

|   |   |
|---|---|
| <b>TOLOSA</b><br>HITZaren egoitza<br>Araba etorb. 5 behea | <b>LEITZA</b><br>HITZaren egoitza<br>Herriko plaza, 1 |
|---|---|

## TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Zeuk idatzi.** Zure herriko albiste baten berri eman nahi baduzu, sartu gure webgunean eta *Zeuk idatzi* atalean hori egiteko aukera izango duzu.

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko urriaren 25a, osteguna ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA goizez arratsaldean beroena **12** hotzena **6** BIHARKO EGURALDIA goizez arratsaldean HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA **902 82 02 01**  
(balantza argitzeko, harpidedun egileko...)

**AGENDA ▶**  
**DEIALDIAK**

**Alegialdea.** Idoia Sanchezen ipuin kontaketa ikaztegiatiko liburutegian 17:00etan, eta Baliarraingo liburutegian 18:30ean.  
**Anoeta.** *Tocando el cielo* bideoa emango dute Anoetako udal txetan 19:00etan, Mendi Astearen barruan. Bi mendizaleren historia erreala kontatzen du.  
**Anoeta.** 2008ko Kilometroak Iruran egingo dira. Hori dela eta, bilera informatiboa egingo dute Anoetan, ekitaldiaren nondik norakoa azaldu eta anoetarrei laguntza eskatzeko asmoz. Bilera Anoetako Ikastolan egingo da, 20:00etan.  
**Tolosa.** Fernando Barrenak hizaldia emanen du Antonio M. Labaien kultur etxean 20:00etan egoera politikoaz.

**ZINEMA**

**Tolosa.** Claude Chabrol zuzendari ezagunaren *Borrachera de poder* filma emango dute Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumak antolatuta.

**ERAKUSKETAK**

**Tolosa.** Lanbroan, Maria Cristina Gonzalez tolosarraren oleoak ikusgai (bodegoiak eta paisaia akronikoak) azaroaren 3ra arte.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.  
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.  
▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

# Irakurzaletasuna bultzatuz

**TOLOSALEA ▶** Liburutegiaren Egunaren harira hainbat ekitaldi izan ziren eskualdean; Tolosan eta Belauntzan, esaterako, umeei opariak eman zizkieten

**ERREDAKZIOA**

**I**rakurzaletasuna bultzatu aldera, ekitaldi ugari antolatu dituzte egunotan eskualdeko hainbat herritan. Hain zuzen ere, atzo izan zen Liburutegiaren Egunaren harira, bereziki txikienei zuzenduriko ekimenak antolatu zituzten udal ezberdinek. Guztietan helburua berbera izango da, gaztetxoak liburu mundura erakartzea, modu interesgarri batean.

Tolosan, esaterako, liburutegiko kamisetak zozketatu zituzten, liburuak maileguan eramaten zituzten erabiltzaileen

arte. Halaber, liburutegia zoriortzera joan zirenei gozokiak banatu zizkieten. Hala, pankarta txuri batean gaztetxoei aukera eman zitzaizen liburutegia zoriortzeko. Aste osoan zehar egiten ari diren bezalaxe, liburutegiko txartela ateratzeko lagun bat eraman zuten bazkideek oparixko bat jaso zuten, bertako arduradunen eskutik.

Belauntzan ere ospatu zuten Liburutegiaren Eguna. Bertan, liburutegiko berrikuntzak erakustez gain, herriraino gerturatu zirenek freskagarriak, gaztainak eta opariak jaso zituzten, Herriko Tabernaren atarian.



Pankartaren gainean idatzi ahal izan zuten umetxoek Tolosan. I. GARCIA



Gaztainak egiten ari ziren artean irakurtzen aritu ziren Belauntzan. A. I.

**AGURRAK ▶**

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.**

**hitza**  
agurren tartea

**Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...**



**URTE ASKOAN**  
Iraitz. Zorionak eta sei muku erraldoi ebekoan partetik.

**Kimetz**

denda berria

♂ **Mutil arropa** Kale Nagusia 13 943 24 94 96

♀ **Neska arropa** Kale Nagusia 21 943 67 38 62

**hitza Harpidedunen txokoa**

**Larunbatean, urriak 27, arratsaldeko 17:00etan** Tolosako Leidor Aretoan **PIZTI DOMATZAILEA** antzezlan eskainiko dute. HITZak harpidedunen artean **2 sarrera pare zozketatuko ditu. Zorte on eta adi egon!!**

Parte hartzeko, deitu ostiralera arte 13:00a bitarte: **943 65 56 95**

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea